**Esp. kodea:** 2025PBAK0001
**Titularra:** EAEKO AUZITEGI NAGUSIA

**Gaia:** Bake epailea eta ordezkoa hautatzeko prozedura
**Hasiera data:** 2025/09/12

**OINARRIAK**
**PERTSONEN INFORMAZIO BATZORDEA: 2025/09/25**

**Bake epailearen eta haren ordezkoa hautatzeko deialdia.**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluetan xedatutakoa betetzeko, Udalbatzarrak hautatu eta proposatuko dizkio Lurralde Eremu honetako Justizia Auzitegi Nagusiari udalerri honetako bizilagunak, bake epailearen eta haren ordezkoaren kargua hartzeko.

***Karguaren ezaugarriak:***

- Udalerrian bizi beharko da, Justiziako Epaitegi Gorenak arrazoi sendoengatik beste herri batean bizitzeko baimena ematen ez badio behintzat.
- Epaileak finkatuko ditu entzunaldien ordutegia, eta dagokion erabakiari behar bezalako publizitatea emango zaio.
- Bere aginduak dirauen bitartean ezingo dira lekuz aldatu.
- Bere karguagatik ezagutzen dituen ekintza eta berriak gorde beharko ditu.
- Legeak eskaintzen dion konpetentziaren arabera ezagutuko ditu izaera zibil zein penaleko kasuak.
- Legeek eskaintzen dizkien gainontzeko funtzioak beteko ditu.
- Kargua lau urterako da.
- Legez ezarritako sistema eta kopuruaz ordainduko dira.
- Erantzukizun zibil eta penalari lotuta geratzen da, bere eginkizunak burutzerakoan maltzurkeriaz edo bere erruz delituak eta falta edo kalte eta galerak sortzen baditu.

**Convocatoria para la elección de Juez/a de Paz y de Sustituto/a.**

En cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 101 y 102 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, el Pleno de esta Corporación procederá a la elección y propuesta al Tribunal Superior de Justicia de esta Demarcación Territorial, de vecinos/as de este municipio para ocupar el cargo de Juez/a de Paz y de quien ha de sustituirle/a.

***Características del cargo:***

- Deberá residir en el municipio, salvo que por razones justificadas el Tribunal Superior de Justicia autorice la residencia en municipios distintos.
- El/la juez/a fijará las horas de audiencia, dándose al acuerdo correspondiente la debida publicidad.
- Gozará de inamovilidad durante el tiempo que dure su mandato.
- Está obligado/a a guardar reserva sobre los hechos o noticias que conozca por razón de su cargo.
- Conocerá en el orden civil y penal de los procesos cuya competencia corresponda por ley.
- Cumplirá funciones que las leyes le atribuyen.
- El cargo es por 4 años.
- Será retribuido/a por el sistema y cuantía que legalmente esté establecida.
- Está sujeto/a a responsabilidad penal y civil cuando en el ejercicio de sus funciones cometa delitos y faltas o daños y perjuicios con dolo o culpa, respectivamente.

- Legean aurreikusitako baimen erregimenari lotuta geratzen da, karguaren izaeragatik eta profesionaltasun ezagatik eratorritako salbuespenak izan ezik.

***Hautagaiek bete beharrekoak:***

- 18 urte beterik izatea eta nazionalitate espainiarra izatea.

- Karguaren egitekoak normal betetzeko ezintasun psikiko edo fisikorik ez izatea.

- Ez egotea prozesaturik doluzko delitu bat dela-eta, absolbitu arte.

- Ez egotea kondenaturik doluzko delitu batengatik, salbu eta errehabilitatzea lortu bada.

- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 euskara maila egiaztatzea (HAEEren 3. hizkuntz eskakizunaren, EGAren… parekoa). Maila hori egiaztatzen ez duenarentzat, udaleko Euskara zerbitzuak proba bat egingo du (oinarritzat hartuko da 3. hizkuntza eskakizunari dagokion maila). Proban Gai edo Ez Gai diren neurtuko da, eta baztertzailea izango da.

- Ez jardutea abokatu, ezta prokuradore ere.

- Ez izatea kargu politikorik edo sindikalik.

- Ez izatea funtzionarioa edo Administrazio bateko langilea edo administrazioarena den erakunde batekoa (irakaskuntzara edo lege ikerketara aritzen direnak izan ezik).

- Ez jardutea lege aholkulari, ordainduta edo ordaindu barik.

- Arrasateko udalerrian bizitzea.

- Ez egotea sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102, 302, 303 eta 389tik 397ra doazen artikuluetan erregulatutako bateraezintasun edo debeku kasuetan.

- Está sujeto/a al régimen de licencias y permisos previstos en la ley con las excepciones que se deriven de la naturaleza de su cargo y de su carácter no profesional.

***Requisitos de las personas aspirantes:***

- Tener cumplidos los 18 años y poseer la nacionalidad española.

- No estar afectada por incapacidades síquicas o físicas que imposibiliten cumplir con normalidad las funciones del cargo.

- No haber sido procesada por un delito doloso, en tanto no hayan sido absueltas.

- No haber sido condenada por un delito doloso, salvo que se haya obtenido la rehabilitación.

- Acreditar el nivel C1 de euskera del Marco común Europeo de Referencia para las Lenguas (equivalente al perfil lingüístico 3 del IVAP, EGA…). Para quien no pueda acreditar dicho extremo, el Servicio Municipal de Euskera realizará una prueba al efecto (se tomará como base el nivel atribuido al perfil Lingüístico 3). Dicha prueba se valorará como Apto o No Apto, y será eliminatoria.

- No ejercer la Abogacía ni la Procuraduría.

- No ostentar cargos políticos o sindicales.

- No ser funcionario/a o trabajador/a de una Administración o de un organismo dependiente de la misma (con excepción de las que se dediquen a la enseñanza o a la investigación jurídica).

- No dedicarse al ejercicio de la Asesoría Jurídica sea o no remunerada.

- Residir en el Municipio de Arrasate.

- No estar inmerso/a en los supuestos de incompatibilidad o prohibición regulados en los artículos 102, 302, 303 y del 389 al 397 de la Ley Orgánica del Poder Judicial.

***Eskaerak aurkeztea:***

Interesa duten pertsonek eskaera orria aurkeztu beharko dute honako leku hauetakoren batean:

a) Eskabide elektronikoa egoitza elektronikoan: ataria.arrasate.eus. Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, egoitzan onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat izan beharko du.

b) Aurrez aurreko eskabidea. Biztanleen Arreta Zerbi tzu an (Arano eta Garcia maisu-maistren kalea 8, 20500 Arrasate).

c) Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskaera orriak aurkeztu beharko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean.

Interesdunek agertu beharko dute eskaera orrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eskaerak aurkezteko epea ixteko egunean, eta, halaber, eskaera orrian alegatutakoaren egiaztagiriak erantsi beharko dituzte.

***Hautaketa prozesua***

a) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 euskara maila (HAEEren 3. hizkuntz eskakizunaren, EGAren… parekoa) egiaztatzen ez duten pertsonentzat hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba (gai edo ez gai).

b) Baldintzak betetzen dituztenen artean zozketa egingo da epaimahaiaren aurrean, Udalaren web orrian (www.arrasate.eus) jakinaraziko den egunean.

Parte hartzeko zenbaki bat esleituko zaio pertsona bakoitzari. Zenbaki hori bat etorriko da zozketara

***Presentación de solicitudes:***

Las personas interesadas deberán presentar la instancia correspondiente en alguno de los siguientes lugares:

a) Solicitud electrónica en sede electrónica: ataria.arrasate.eus. En caso de optar por la presentación electrónica deberá disponer de un medio de identificación y firma electrónica admitidos en la sede.

b) Solicitud presencial. En el Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento, sito en (calle Arano eta Garcia maisu-maistrak 8, 20500 Mondragón).

c) Podrán también presentarse en cualquiera de los lugares que determina el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las instancias se presentarán en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Se deberá hacer constar en la instancia que reúnen todos los requisitos exigidos, a la fecha del cierre del plazo de presentación de estas, y asimismo deberán adjuntar documentación acreditativa de lo alegado en la instancia.

***Proceso de selección:***

a) Para las personas que no acrediten el nivel C1 de euskera del Marco común Europeo de Referencia para las Lenguas (equivalente al perfil lingüístico 3 del IVAP, EGA…) prueba encaminada a acreditarlo (apto o no apto).

b) Se realizará un sorteo entre las personas que cumplen los requisitos ante el tribunal, en la fecha que debidamente se comunicará en la web municipal (www.arrasate.eus).

Se asignará un número de participación a cada persona, que coincidirá con el puesto/orden que ocupa

onartutakoen zerrendan duen postuarekin/hurrenkerarekin, eta Udalaren webgunean argitaratuko da, zozketaren datarekin batera.

Zozketa bakarra egingo da bake epaile eta ordezkoarentzat. Zozketako zenbakiak finkatuko du nor izango den titularra eta hurrenkeran jarraian doan zenbakia duenak ordezkoa izango da. Plenoak hautatu aurretik titular gisa proposatutako pertsonak atzera egiten badu, ordezkoa titular gisa proposatuko da.

Zozketaren ondoren geratzen den zerrenda uko egiteak betetzeko erabili ahal izango da.

Zozketa egin ondoren, epaimahaiak bake-epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko proposamena egingo dio Plenoari.

***Epaimahaia:***

♦ Epaimahaiburua: Pertsonen informazio batzordeko presidentea.

♦ Epaimahaikideak:

- Pertsonen informazio batzordekideak.

♦ Idazkaria: Udal idazkaria edo bera ordezkatzen duena.

en el listado de personas admitidas al sorteo. Los números de participación se publicarán en la web municipal junto con la fecha del sorteo.

Se realizará un único sorteo para juez/a de paz y sustituto/a. El número que salga en el sorteo determinará quién será la persona titular y el numero correlativo siguiente determinará quién es la persona sustituta. En caso de desistimiento de la persona propuesta como titular previo a la elección por el Pleno supondrá que el/la sustituto/a pasa a ser propuesto/a como titular.

La lista que quede tras el sorteo podrá ser utilizada para cubrir las renuncias.

Realizado el sorteo, el tribunal realizará al pleno la propuesta de elección de juez/a de paz titular y sustituto/a.

***Tribunal:***

♦ Presidente/a: el de la Comisión informativa de Comisión de Personal

♦ Vocales:

- Las personas que integran la Comisión informativa de Personal.

♦ Secretaria: La secretaria municipal o persona que la sustituya.

BATZORDEBURUA

EL PRESIDENTE DE LA COMISIÓN

Kepa Urteaga Garcia

# Eskabidea BAKE EPAILEA ETA HAREN ORDEZKOA hautatzeko deialdian parte hartzeko

## NORBERAREN DATUAK / *DATOS PERSONALES*

| | | |
|---|---|---|
| NA / *DNI* | Jaioteguna / *Fecha de nacimiento* | Herritartasuna /*Nacionalidad* |
| 1. deitura / *1er apellido* | 2. deitura / *2º apellido* | Izena / *Nombre* |
| Helbidea / *Dirección de residencia* | Posta kodea / *Código postal* | Herria / *Localidad* |
| Probintzia / *Provincia* | Telefonoa/*Teléfono* | Sakelakoa/Teléfono móvil |
| Posta elektronikoa/ *Correo electrónico* | Gida-baimena / *Permiso de conducir*<br>Mota/ *Clase:* | |

## TITULU AKADEMIKOA / TITULACIÓN ACADÉMICA

| Titulua / *Título* | Zeinek eta non eman dizuten<br>*Centro y localidad de expedición* | Noiz lortu duzun<br>*Fecha obtención* |
|---|---|---|
| | | |

## EUSKARA / EUSKERA

Titulua euskara maila egiaztatzen duena / *Título acreditativo del nivel de euskera*

☐ 3. HE/*PL 3* ☐ EGA ☐ 4. HE / *PL 4* ☐ Besterik / *Otros*

**Esp. kodea:** 2025PBAK0001
**Titularra:** EAEKO AUZITEGI NAGUSIA

**Gaia:** Bake epailea eta ordezkoa hautatzeko prozedura
**Hasiera data:** 2025/09/12

Eskabide hau izenpetzen dudan honek zera eskatzen dut: Bake Epaile titularra eta haren ordezkoa hautatzeko prozeduran onartua izatea. Era berean, AITORTZEN DUT eske-idatzi honetan jarritako xehetasun guztiak egiazkoak direla eta Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak Epailetza Karreran sartu ahal izateko ezartzen dituen baldintzak betetzen ditudala eta lege horretako 102, 302, 303 eta 389. artikuluetan epaile-karguetarako ezarritako ezgaitasun eta bateraezintasuneko kausetariko ezeinetan ez nagoela sartua.

*La persona abajo firmante solicita ser admitida en la convocatoria para la elección de Juez/a de Paz y de su Sustituto/a. Asimismo, DECLARA, BAJO SU RESPONSABILIDAD, que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas* en la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, para el ingreso en la Carrera Judicial, no estando incurso en las causas de incapacidad y de incompatibilidad para cargos judiciales previstas en los artículos 102, 302, 303 y 389 de la citada norma.

Eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitxategi automatizatuan jasoko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da; eta datuak gordeko dira tratamenduaren helburutarako behar den denboran, baita erantzukizunak zehazteko egokitzat jotzen den denboran ere. Arrasateko Udaleko Alkatea da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta aurka egiteko, organo horretara jo beharko da (Herriko plaza nagusia, 1. 20500-Arrasate).

*Los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo; y serán conservados por el tiempo pertinente para los fines del tratamiento, así como el necesario para determinar responsabilidades. La responsable de este fichero es la Alcaldesa del Ayuntamiento de Arrasate, y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición. (C/Herriko plaza nagusia, 1. 20500-Arrasate).*

Arrasate, 2025eko ..................................................